



Kostuen egitura

Gure proiektuak bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko plangintza argia behar du hasieratik. Kostu finkoei dagokienez, salmenta-bolumenetik independenteak diren hainbat gastu ditugu hilean. Nagusiena webgunearen hostinga eta domeinua da, hilean 3.500 euroko kostua duena; webgunea proiektuaren oinarria denez, etengabe martxan eta eskuragarri egotea ezinbestekoa da. Horrez gain, eguneroko kudeaketa eta jarduera egokia ahalbideratzeko software edo plataforma digitalen lizentziak erabiltzen ditugu, hilean 20 euroko kostuarekin. Era berean, lanerako beharrezkoa den WiFi tarifa dugu, hilean 37.5 euroko gastua suposatzen duena.

Hasierako fase honetan ez dugu soldatarik ezta administrazio-gastu finkorik ere izango, lau bazkideok zuzenean parte hartzen dugulako proiektuan; sortzen diren irabaziak, beraz, dibidenduen bidez banatuko dira lauron artean.

Kostu aldakorrei dagokienez, hauek oso mugatuak dira gure kasuan, izan ere, garraio eta bidalketa gastuak erabiltzaileak berak ordainduko ditu erosketa egiterakoan, eta, ondorioz, ez dute eragin zuzenik enpresaren gastuetan.

Azkenik, proiektua martxan jartzeko eta hasierako gastu guztiei aurre egiteko, bazkide bakoitzak 1.000 euroko hasierako inbertsioa egingo du. Ekarpen horri esker, lehenengo gastuak estali eta jarduera behar bezala abiarazi ahal izango dugu, kanpoko finantzaketarik behar izan gabe.

HASIERAKO GASTUAK
Sortzaile bakoitzak 1000 euroko inbertzioa, hau da 4000 euroko gastua

KOSTU FINKOAK	KOSTU FINKOAK (HILERO)
Webgunearen hostinga	3500
Software edo plataforma digitalen lizentziak	20
WiFi tarifa	37.5